

ASTEARI ZEHARKA BEGIRA

Eguerdi bat Xixonen

RAMON SOLA > 9

ETIOPIAKO TIGRAY ESKUALDEA:

Buna, emakumeak kafearen
bueltan ahalduntzeko aukera > 4

2025eko abuztuaren 2a | XIX. urtea • 938. zenbakia
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info




PENTSAMENDU
ERALDATZAILEA
ZORROZTEN

ERALDAKETARAKO TEORIA ETA
PRAKTIKAK BERRITZEKO ASMOZ, DANELE
SARRIUGARTE ETA MIJO LIZARZABURUK
QUEER EDO KUIR BORROKA, EUSKARA,
ALIANZAK ETA BESTE LANDU DITUZTE.

> 10 Jon URBE | FOKU

Arduraduna: Amagoia Mujika Telleria. **Erredakzioa:** Asier Aiestaran Iruretagoiena, Mikel Urdangarin Irastorza.

Argitaratzailea: Astero. **Lege Gordailua:** SS-77/07. **Helbidea:** Portuetxe 23-2a. 20018 Donostia. P.K.: 1099. Tel.: 943 31 69 99 / Faxe: 943 31 69 98. **e-posta:** info@gaur8.info. **Publizitatea:** Euskal Prensa. Tel.: 94 424 72 06.



Buna, Tigray-ko emakumeentzat
ahalduntze (g)une bilakatu den
kafea hartzeko ohitura 04



SINADURAK:

03 **Mikel Urdangarin Irastorza:**
Txandalero, txandalari!

07 **Amaia Ballesteros**

08 **Ula Iruretagoiena Busturia:**
Burokrazia

09 **Ramon Sola:** Eguerdi bat
Xixonen

16 **Uxue Llano-Abasolo:** Erronkak
hezkuntzan: ziberindarkeria
bikote-harremanetan eta
pornografia kontsumoa

17 **Iker Barandiaran:**
Paperik ez (2)

21 **Koldo Sagasti:** «Ta ezer ez da
berdin»


22 **Maitane Martinez Eguiluz:**
CL1: ordenagailu biologikoa ala
izaki biziduna?

Danele Sarriugarte eta Mijo
Lizarzaburu, pentsamendu
eraldatzailea zorrozten 10

Gertuko Planak: Trenaren Euskal
Museoa, gure historia hurbilera
bidaia bat Azpeitian 14

Pantaila Txikian: Telesail
laburren aroa? 18

Juantxo Egañaren behatxulotik:
Urumea ertzak 1919an, Donostiako
auzotarren benetako festak 23



{ datorrena } Mikel URDANGARIN IRASTORZA

Txandalero, txandalari!

Hatortxu jaialdi ederraren biharamunean hasi naiz artikulua idazten. Ajerik gozoenetan bezala, atsedean beharrean, baina irribarretxo batekin, bizipenez, emozioz eta energiaz gainezka. Eta, egia esan, jaialdiak egindako antolaketa-erakustaldiarekin liluratuta.

“Auzolana gure indarra” leloa bizkarrean, *denak fosforitoz*, zenbat eta zenbat txandalari! Abestiari segika, batzuk barran, *txupito*, *ginkas*, *kaña ta kali* ateraz. *Inork ezin du ukatu barralari baten xarma...* ezta zaborra biltzen, trafikoa zuzentzen, filtroetan, antipaniko gisa edo aitzurrarekin lurra berdintzen ibili direnena ere! *Pizzagile zein argazkilari*, hantxe ibili dira sabelak eta arimak betetzen, eta emozioen, jakien eta edarien nahasketak gainez eginez gero, ttaka, *komuna garbi*. *Walki, salda ta manta, gora gure seguratak!* Eta, jakina, peto moredunak, sirena hotsek behin baino gehiagotan egin baitute deiadarra kasu honetan ere, eta ezinbesteko lana egin baitute denentzat gunee segurua izan zedin.

Beriaineko magal magikoan, halaxe aritu dira 7.000tik gora txandalari –erraz esaten da!–. Maitasunaren apologiak bultzatuta, arduraz eta umorez; logika merkantilistaren aurrean, borondatez, eta enpresa askok nahi luketen profesionaltasunez. Delegatu sindikalak eta afiliatuak; alkate, zinegotzi zein herritarrak; espetxeen izenen zerrenda luzeak buruz ikasi behar izan dituztenak eta pertsonalki presorik ezagutzen ez dutenak... denak batera, parez pare, *elkar helduta bi t’erdi* eginez.

Oihalaren atzealdean, ekimen honen artisauak, inurri lanean. Jaialdiaren aurretik, dena planifikatzen, izapide burokratikoak egiten, herria apaintzen... Momentuan, txandalariei lanak errazten, ezustekoei erantzuten... Eta oraintxe, bestondoa kudeatzen: desmuntatzen, kontuak ixten... eta gehienok jabetu ere egiten ez garen hamaika lan egiten. Asko –tartean lankide bat baino gehiago–, oporretako egunak hartuta. *Zenbat lan egiten den denak itzultzeko etxera.*

«Hatortxu hiltzeko jaio zen», gogorarazi zuten ekitaldian: «Inoiz ez da helburua izan, tresna baizik». Bai-

na bide horretan, beste hainbat eragile eta ekimenekin batera, bizi-bizirik iraun beharko duten balioak eta sarea erein dituzte. Bidean pausoak egin dira, eta pauso bakoitzean bidea egin da: elkartasun-uhinak zabaltu eta «kilometroak metro» bihurtzeaz batera, sekulako grina kolektiboa, harreman sarea eta jakintza teknikoa egituratu da. Hau da, herri antolatu eta gaitu bat.

Eta hori datozen hilabete, urte eta hamarkadetan ere ezinbestekoa izango da: oraindik kartzeletan edo ihesi daudenak etxera ekartzeko, herrira etorri ahala harre-ra duina eskaintzeko, euskara indarberritzeko, jatorri eta kultur aniztasunetik herri kohesionatu bat eraikitzeko, zaintza eredu publiko-komunitarioa ehuntzeko, lan eta bizi prekaritateari aurre egiteko, energia komunitateak antolatzeko... Finean, herria egiteko. «Petoa da bide bakarra!», ekitaldian aldarrikatzen zuten bezala. *Kasual jantzita*, txandala, soinekoa, bakeroak edota

«Kasual jantzita, txandala, soinekoa, bakeroak edota amerikana soinean, jarrera txandalaria izango da herri-egiturak ponpatuko dituen bihotza»

amerikana soinean, jarrera txandalaria izango da herri-egiturak ponpatuko dituen bihotza.

“Aske” izango da jaialdi berriaren leloa, «Euskal Herriaren eta bere jendearen askatasuna aldarrikatzeko». Ez da, noski, askatasun neoliberal eta patriarkala izango: ez pribilegioen gurtza axolagabea, ezta muga korporal, sozial eta ekologikoen kontrako iraultza etengabea ere. Izan ere, elkar arta eta aska, elkartasuna eta askatasuna elkarrekin aldarrikatu beharko dira gerora ere. Gurea -txu edo -txo atzizkia dutenen askatasuna baita: gatibuena, deserriratuena, txikerrena... Finean, euskal herritar guztiona, printzipio unibertsal bezain konkretuarekin: batek gose diraueno ez gara gu asetu-ko, bat inon loturik deino ez gara libre izango.

Elkartasunean aske, askatasuna elkartasunetik (*#PalestinaAskatu*). Bide horretan, *peto batekin eutsi* bizitzari, *txandalero*, *txandalera*, *txandalari!* •



Buna. Horrela deitzen diote Etiopiako Tigray eskualdeko emakumeek elkartu, kafea hartu eta elkarrekin hitz egiteko eta egoteko hartzen duten denborari. Gerraostean, ezinbestekoa dute bizirik irauten jarraitzeko. Egoaizia eta Etiopia-ko 4yBIN erakundeek Euskal Herrira ekarri nahi izan dute Tigrayko emakumeen errealitatea, dokumental, erakusketa eta kafeen bidez. “BUNA: Isiltasun osteko ahotsak”.

Egoaiziako kideek badaramatzate hiru bat urte Etiopiako iparraldeko Tigray eskualdea gertutik ezagutzen eta laguntzen. Mundu zabalean pizten diren “gerra handiek”, ordea, beste batzuk itzalpean uzten dituztela pentsatzen dutenez, etiopiarrei laguntzeaz gain, bertako errealitatea gurera ekartzeko ahalegina egin dute. Eibarren abiatu zuen dokumentalaren izen bera duen erakusketak bidea, eta irailaren

KAFEAREN BUELTAN

Buna: Etiopiako Tigray eskualdean, kafearen bueltan elkartuta ahaldundu dira emakumeak gerraostean

 **GERRAOSTEA** / Iratiz MATEO GOGORZA

Guretzat eguneroko ekintza xume bezain arrunta izan daiteke kafea hartzea, baina ez da halakoa Tigrayko emakumeentzat. 2020an abiatutako gerraz geroztik kafearen unea izan baita aurrera egiteko beraien indarra, elkertasunerako eta ahalduntzeko une eta gune.

13ra arte Donostiako Okendo Kultur Etxean izango da; irailaren 11n proiektatuko dute, hain zuzen, dokumentala pantaila handian.

Emakumeen testigantzak jasotuzte, batez ere, elkarteko lagunek, baita egoera hobeto ulertzeko guztiz baliagarriak diren pertsonenak ere. Baina

ezinbestekoa da testuinguratzeko labur bat, auzia konplexua bada ere, 2020ko azaroan, Etiopian, gerra «suntsitzaile eta isilena» bat hasi baitzen; Tigrayko Herri Askapenerako Frontearen (TPLFren) kontra Etiopiako Gobernuak operazio militarra abiatu zuen, eta ondorio larriak ekarri zituen, ge-

rra guztiek bezalaxe, gaurdaino bizirik daudenak.

Tigray gizateriaren aurkako krimenez, milioika desplazamenduz eta gosez jositako gatazka odoltsuaren agertoki bihurtu zen duela bost urte. 600.000 pertsona baino gehiago hil dituzte eta 120.000 emakume eta neska baino gehiago bortxatuak izan dira sistematikoki, nazioarteko komunitatearen isiltasunaren aurrean.

Laguntza oihuek gorpuztu dituzte bertako emakumeen hitzak: «Ez zaigu deus geratzen, eta aldi berean ez dugu mendekurik bilatzen, biziraupena baizik». Gizateriaren aurkako krimenek, desplazamendu masiboek, goseteak eta komunikabideen isiltasunak markatutako krisi humanitarioa da, Egoaiziaren arabera.

Bertako emakume gehienak bortxatu egin dituzte, asko eta asko soldaduek, eta jasandako biolentziaz gain, estigmatizazioarekin ere egin dute topo, familia zein lagunartetik apartatuta.

Lide Ugarte Egoaiziako kideak horretan jarri du azpimarrak: «Emakumeak ezin dira elkartu beren familia eta lagunekin, bortxatuak eta estigmatizatuak izan dira; beraien artean elkartzea eta hitz egitea da motxila hori kentzeko ezinbesteko ekintza».

Baliabide naturalen muturreko ustiapenak, batetik, eta lehortekak, bestetik, gosetea hedatu dute biztanleen artean; 2021eko datuetara joz, biztanleen %60k muturreko pobrezia pairatzen du. Dokumentalean ere arreta jartzen da horretan, bereziki urarekin duten arazoan; azaltzen dute ia ezerk ez duela funtzionatzen urik gabe, eta Angel Olan misiolari herriarriak kontatzen du gerrak eragindako egoerari krisi kli-

Kafea eta, batez ere, kafearen momentua ezinbesteko unea da Tigrayko emakumeentzat.
Andoni CANELLADA | FOKU

matikoaren eragina gehitu behar zaiola, urarekin dituzten arazoen artean.

NOLA EMAN IKUSGARRITASUNA

Iñaki Luis LuzNorte Films ekoiztetxeko kideetako bat da, eta “BUNA: Isiltasun osteko ahotsak” dokumentalaren zuzendaria. Egoaiziak proposatuta iritsi zen Tigrayra, egiten zuten lana dokumentatzeko misioa jarri zioten, bai bideoz, bai argazkiz. «Erronka zen bi lanak aldi berean egitea», kontatu digu, baina taldetxo bat sortu eta hara joan ziren. Argi du bere lana auziari ikusgarritasuna ematea dela, «nolabait gizartea kontzientziaztea». Eta bide horretan, esperientzia «itzela bezain gogorra» izan zela gogoratzen du: «Gerra baten ondorio guztiak ikusten dituzu, izugarrizko dramak dira, testigantza oso gogorrak».

Tigrayko biztanleak pairatzen ari zirena lau haizeetara zabaltzearekin batera, Egoaizia egiten ari zen lana ikusaraztea ere bazen beraien lana, eta azaldu du ez zutela gidoirik. Egune-ro elkarteak egiten zuen bidea jarraitzen zuten, eta bertan topatu zuten dokumentalari izena ematen dion kafe zeremonien haria: «Espazio seguru bezala erabiltzen dute emakumeek kafearen momentua, beraien artean biltzeko. Janariaren edota nekazaritza tresnen banaketak ere momentu horretan egiten zituzten; bizirik irauteko behar zuten hura.. Eta pertsona askoren bizitza aldatzen zuten momentu horiek».

Etiopiar egindako bidaia horretan etengabe egin zuten topo traba eta oztopoekin. Luisek argi du bertako autoritateek ez dutela auzia zabaltzerik nahi: «Arazo pila bat izan genituen administrazioarekin; hori guztia isilarazi nahi dute. Gerraos-

«Emakumeak ezin dira elkartu beren familia eta lagunekin, bortxatuak eta estigmatizatuak izan dira; beraien artean elkartuta eta elkarrekin hitz eginda motxila askatzen dute»

Gizateriaren aurkako krimenak, desplazamendu masiboak, goseteak eta isiltasunak markatutako krisi humanitarioa da, Egoaiziaren arabera

teko bigarren urtean 120.000 emakume bortxatu zituzten, testigantza oso gogorrak ziren, eta emozio tsunami bat izan zen».

Aipaturiko dokumentalaz gain, beste bat prestatzeko itzuli zen Luis Egoiziakoekin Etiopiar, “La fuerza del silencio” – ez da argitaratu oraindik–. Eta orduan ere izan zituzten ara-

Egoaizia elkarteak antolatutako erakusketan isiltasunaren osteko begirada eta ahotsak biltzen ahalegindu dira.
Andoni CANELLADA | FOKU

zoak aurre-produkzioan: «Tigrayko elkarte ari zen elkarriketatuko genituen emakumeak lotzen, eta, adibidez, esan ziguten baimena genuela erizain batekin elkartzeko, baina ospitalera iritsi ginen eta ez zegoen; emakume hori desagertu egin zen. Hain zuzen ere, elkarriketatu behar genuen emakumeak kaxa bat zuen ospitalean, emakumeei egindako erasoetan baginatik sartutako iltzeekin, eskutitz batzuekin... Elkarrizketatzera joan ginean, erizaina kaleratua zegoen ordurako, eta kaxa, desagertuta».

Lana tentuz egitera behartzen ditu dokumentalgileak egoera horrek, baina ate batzuk ixteak beste batzuk irekitzea dakarrela esan ohi da, eta beraiei ere hori gertatu zitzaien.

Izan ere, beste neska baten testigantzarekin egin zuten topo, soldaduek bortxatutako neska batekin. Luisek kontatu du bihozkada bat sumatu zuela, eta hura izango da hurrengo filmeko protagonista.

Eskari bat egin zien, halere: ez zitzatela erabili. «Azaldu zigun nola AEBetako prentsa lehenago bertan egona zen, eta beraien istorioa entzun eta martxa egin zutela, hedabideei saldu zietela, eta oso erabiliak eta ahaztuak sentitu zirela», dio zuzendariak. Eta horregatik izan dela garrantzitsua Egoaiziaren eskutik egitea bidea, bertakoei laguntzeko funtzioa etengabe presente zegoelako.

Olaranek hogeita hamar urte inguru igaro zituen Etiopian misiolari, eta «basakeriak» egin direla aitortu du: «Askotan sol-





daduek beraiek ateratako argazkiengatik ikusten genuen zer gertatzen zen; emakume horiek barruan daramate gertatutakoa, ez dira ausartzen ezer esatera, soldaduek kontatzen zuten bortxatu egin zituztela, edo irudiak zabaltzen zituzten».

Testigantza latzak jaso badiutuzte ere bidaia horretan, Iñaki Luisek Tigrayko herriaren erresilientzia ekarri du mahaigainera, berari pertsonalki asko lagundu baitio hankak lurrean jartzen: «Hemen edozerengatik gaude aurpegi txarrez, eta han irribarre batekin daude beti; Tigrayko herriaren erresilientziak zirrara eragin zidan».

BERTAKOAK AHALDUNDUZ

Proiektu berri bat abiatu dute Tigrayn bertan Egoaiziak eta Etiopiako 4yBIN erakundeak: ikasketa humanitarioen zentro bat ireki dute Mekelleko unibertsitatean. Luisek, ikusita-koak ikusita, hau dio: «Laguntzeko, nola lagundu ere jakin behar da, borondate ona guztiok dugu, baina askotan ez dakigu nola lagundu».

Egoaiziako Marisabel Albizuk kontatu du Etiopiarrekiko harreman estua 2022ko abenduan abiatu zutela, «bakearen sinadura izan zen une horretan; berehala ikusi genuen bertaratze-ko aukera, lehendik zeuden harremanak berreskuratu eta berriro bertaratzekoa».

Halaxe egin zuten. 2023. urtean joan ziren eta, azaldu duenez, bi konturi heldu zieten: «Alde batetik, urgentziazko gauzak direnak, ‘asistentzia lanak’ ere deituak: nekazaritza, etxeko ekonomia berpiztea... Eta, bestetik, etorkizunean pentsatu eta zer motatako elkarkidetasa nahi dugun zehazten hastea».

Luissek azaldu du zaila izan zela testigantzak biltzea ere, etengabe oztopoekin egiten zutela topo: «Erizain batekin geratuak ginen eta elkarrizketaren egunean desagertu egin zen»

Giza laguntza indartu eta sostengatzeko, ezinbestekoa da bertako biztanleekin lan egitea, eta haiek larrialdi egoeretarako prestatzea, Egoaizia elkartearen ustez

Tigrayn gertatzen ari dena Euskal Herrian zabaltzea da elkartearen helburuetako bat.
Andoni CANELLADA | FOKU

“Giza laguntza edo laguntza humanitarioa” deitzen zaion horri erreparatuta, Albizuren ustez, ezinbestekoa da bertako jendearekiko elkarlana. Izan ere, haiekin hizketan ondorio bat atera zuten: «Pentsatu behar genuen nola prestatu bertako jendea horrelako larrialdi egoeretan erantzunak bertatik emateko». Eta ondorioz, Mekelleko unibertsitatea Euskal Herriko Deustuko unibertsitatearekin harremanetan jarri, Lakuarengana diru eske joan eta martxan hasi ziren; «babarrunak osagai askorekin egiten diren bezalaxe, hemen ere osagai guztiak bildu ahal izan genituen», azaldu du umoretsu.

Ideiak nola eraman praktika-ra gerraoste betean dagoen herrialde batean? Bertako erakundeak inplikatur. Egoaiziako kideak azaldu du jada zabalik dagoela aipaturiko ikasketa zentroa. «Diseinuan lan handia egin dugu, bertako unibertsitatearekin egin dugu analisia ea zein eduki izan behar zituen, eta hori unibertsitateko irakasleek bertako GKEekin batera landu dute». Udazkenean, ikasurte berriarekin batera hasiko dira klaseak Mekellen, Albizuk azaldu digunez.

EUSKAL HERRIRA EKARTZEAZ

Egoaiziaren proiektuak, beraz, bi adar nagusi ditu: Tigrayn bertan biztanleak heztea, erantzunak bertatik bertara emateko, eta auzia lau haizeetara zabaltzea, Euskal Herritik hasita. Eibarren abiatu eta gaur egun Donostian dagoen erakusketa-aren helburuez galdegin diogu Albizuri: «Egoera hauek oso konplexuak dira, errazagoa izango litzateke arazoa gosea bakarrik balitz. Baina gerra baten ostean eta gerra baten inguruan arazoak konplexuak di-

ra, eta konplexutasun horren ertz bat beti dira emakumeak, emakumeen egoera. Hori oso latza izan da, bagenekien, eza- gutzen genituen, baina bertako emakumeen istorioak eta tragediak beraien ahotsean bildu nahi genituen».

Ikusarazteko bultzadari kasu egin eta dokumentalaren zein emakume horien argazkien bidez gertatzen ari dena azaltzen dabilta. «Gerra amaitzen denean, ordea, sufrimendu hori guztia ez da bukatzen, gizar- teak ez ditu emakume horiek onartzen...», ohartarazi du, eta beraz, Gobernu Kanpoko Erakundeek, jada gerra puri-pur- rian ez dagoenez, eta gero eta arreta gutxiago duenez, gerraosteko sufrimenduari erreparatu diote.

Hala eta guztiz ere, Albizuk emakume horien ahalduntze gaitasuna ere azpimarratu du: «Kafearen ingurukoa biolentziaren eraginez antolatu duten erresistentzia espazio bat da, eta hori ere eman nahi genuen ezagutzera; erakusketak hori guztia modu ederrean jasotzen du».

Egoera aldatzea lortu ez badeute ere, bai Albizu bai Luis ados daude arazoa gehiago eza- gutaraztea lortu dela; «egoera ezin da guztiz aldatu, baina zerbait aldatzen ari da». Eta beren alea jarri dutela sinetsita eta gehiago jarri nahiaren ezintasunarekin egin dute bidea. Hitzaz azaltzeko horren zaila dena irudien bidez kontatuz, Tigray mapan kokatu eta bertako egoera salatzen jarraituko dute Egoaizia elkarteak eta bere konplizeek.

Kafearen momentua emakumeentzat besarkada kolektibo bat da Etiopiako Tigray eskualdean, eta Euskal Herrian ere hala izateko esperantzaz jarraituko dute lanean.

LUR AZPIKO ABENTURAK



iRRITZIA:



Amaia
BALLESTEROS



Ula IRURETAGOIENA BUSTURIA - @ulissima5
Arkitektoa


Burokrazia

Azkenaldian profesional eta akademiko askoren ahotan entzun dut lanorduen portzentaje nagusi bat «papeleoa» egitera dedikatzen dutela eta lanaren alderdi sortzailearen denbora zeharo murriztua gelditu zaiela. Izapideak, baimenak, dirulaguntzak, kontsulta-orriak bete, formularioak, justifikazio-ziurtagiriak. Lan horri gehitu askotan online ekintzak direla eta informatikak akats egiten duenean sortzen duen kaosa. Batzuetan prozedura administratiboaren sistemak sortzen ditu lan gehigarriak; besteetan dagoeneko sistema informatikoan dauden datuak gaineratzeko lana egin behar da. Denbora galtzearen sentsazio nekeza. Zeozer burutu aurretiko kudeaketa-lanen karga desorekatua kexa orokortua da, eta gizarte moduan zer pentsa eman beharko liguke. Zenbat energia dedikatua prozedura nahaspilatsu batean, zeina ongi funtzionatzeko beharrezkotzat jotzen dugun, baina gure berezitasunetik gehien eskatzen duten eginkizunetarako energia gehiegi lapurtzen duen, ahiturik iristeraino batzuetan. Administrazioaren antolaketa eraginkor baten atzetik gabiltzala ez ote garen egoera zentzugabea sortzen ari.

Tramiteen denbora murrizteak administrazio publikoaren helburu nagusi bat izan beharko luke. Baina bestaldean, egia da badirela tramiteetako prozedurak maite dituzten pertsonak, kontrol sentsazioa eskaintzen dielako, konplexutasuna ondo egindako bide baten bermea izango balitz bezala. Gure administrazio sisteman, den-dena arautu nahi

dugu, eskubideak bermatuta egon daitezen alde batetik, eta kontrol eta fiskalizatze eskaeragatik beste alde batetik. Helburuak denok konpartitzen ditugu eta zilegi dira, baina askotan sinplifikazioa prozedurak diseinatzeko garaian helburutzat izatea ez legoke sobera ere. Britainia Handian, esaterako, arautze zehaztu baten orde, gida orokorrak ezartzen ohituak daude, eta irizpideen aplikazioa irekiago gelditzen da aplikatu behar dutenen artean eskumen handiago utziaz. Kontrol gutxiago akaso, konfiantza handiagoa, errealitatearen doikuntzarako malgutasun zabalagoa. Kontrola non jarri behar den eztabaidatu daiteke, eta kontrola beharrezkoa duten gaietan burokrazia konplexuagoa ezarri, baina eragin gutxiagoko eragiketetan, lausotu.

Ohikoa da dirulaguntza askoren tramite korapilatsuagatik askorentzat ez konpentsatzea burokrazia eta nahiago izatea laguntzarik gabe aurrera ekitea (batzuetan laguntzen eskakizun eta baldintzek behartua). Ezaguna da next generation funtsen burokrazia konplexua; zenbat ikastaro eman diren ulergarritasuna errazteko eta zenbat truko bidean trabaturik ez gelditzeko. Hain da konplikatua, ezen dirua ez baita behar duen lekura iristen. Berriz ere gertatu da energia aurrezpenerako eta zaharberritzeetarako dirulaguntzen portzentaje altu bat dirurik gabe gelditu dela, tramitazioan akats edo gabeziaren bat izan eta tramitetik kanpo geldituta. Helburua dirua behar den eremuetara iristea baldin bada, ezin du prozedurak huts egin eta erraztasuna gakoa da, konplexutasunak beste leku batean egon behar baitu. •



Ilustrazioa: ULA IRURETAGOIENA BUSTURIA

{ asteari zeharka begira } **Ramon SOLA**

Eguerdi bat Xixonen

Udako oporrek zeozer ikasteko aukera ematen dute beti, Euskal Herritik gehiegi urrundu beharrik gabe ere. Asturiasen justu duela astebete, esaterako, us tekabeko egoera topatu dut, zer pentsa ematen duen horietarikoa. Xixonen barrera patxada osoz paseoan genbiltzala, eguerdi alde-
ra, eguraldi ederra lagun, txoko guztietan begirada pausatuz, kaleko giro xumeaz gozatzen, hegazkin baten zarata arraroa sumatzen hasi gara bat-batean. Ez da ohiko soinua. Segundo bakar batzuen ondoren jasanezin bilakatu da burrunba, eskuekin belarriak tapatzeraino. Eta horra hor, Alde Zaharreko etxeen artean gerra-hegazkin bat agertu da, une batez gure buruen gainetik oso metro gutxira. Zitzu bizian al-
dendu, baina laster itzuli da, soinu madarikatu ikaragarri hura berarekin ekarriz.

Zer dela eta? Interneten bilaketa azkar bat eginez, “Festival Aéreo de Gijón” delakoaren hogeigarren edizioa ospatzen ari dela jakin dugu. Horko biztanleek ez dirudite bereziki kezkatu-
rik, beren egitekoetan segitu dute, erosketetan, kirola egiten, paseoan... Batzuek belarriak tapatu ere ez dute egin, zarata zinez inoiz entzun dudana handiena den arren, tinpanoak zulatzeko modukoa. Ohituta daude, nonbait. Terraza batean marmarka hasi da emakume bat, baina tabernaria gustura dago: «Nire aita militarra zen eta txikitatik gustuko izan ditut gauza hauek», azaldu dio bezeroari, elkarrizketa lasaian.

Eurofighter eta F18 bana dira Xixongo zero garbia behin eta berriz urratzen duten gerra-hegazkinak. Gu elefante batek zapaldu behar duen inurria bezala sentitu gara. Gero eta aztoratuago gaude, guztiz deseroso, nahiko ikaratuta ere bai, egia esanda... eta pentsakor. Hegazkin horiek zarata hutsarekin edonor akaba dezaketela dirudi, zer esanik ez lehergailuz kargatuta baleude. Erakustaldia izan arren, erraz irudikatu daiteke Gernikako biztanleek azoka egun batean jasan zuten izua, edota gaur egun Gazan zeozer jateko pilatuta daudenen ikara, israeldar hegazkinak ikusita. Gure lar-
ruan sentitu dezakegu benetan, hau ez da simulagai-

lua. Baina bistan da Xixongo jaialdi honen asmoa ez dela pedagogikoa, ez bakezalea, Armada espainolaren apologetikoa baizik.

Ibiliaren ibiliaz, ihesi ez esateagatik, Xixongo Alde Zaharraren muinora heldu gara ohartu gabe, Cimadevilla izeneko goialdera. Hortik hegazkinen joan-etorri osoa ikus daiteke. Harridura biderkatu egin zaigu: akrobaziak egiten ari dira, jira-buelta etengabea, jolas oso arriskutsuetan, teilatuen gainetik metro gutxi ra pasatzen diren bitartean. Bardeetako hegazkinak garai batean Tuteraren gainetik maiz igarotzen zirela, tarteka soinu-muga gaindituz, etorri zait gogora, baita hark herritarren artean eragiten zituen protestak ere. Cimadevillan “ikuskizuna” gozatzen ari den gazte batek bota du, ondokoak lasaitzeko asmoz: «*Desde un accidente en Murcia, los pilotos tienen orden de echarse al agua si ven que se van a estrellar. Así que, antes que matar a alguien, se suicidan. ¡Vaya cojones tienen!*». Nazka sentitu dut, auzo-lotsa ere bai.

Ondorengo egunean alkatearen adierazpenak irakurri ditugu egunkarian: «Ikuskizun paregabea izan da». Eta euskal herritarrak izateaz harro sentitu gara

Ehunka lagun igo dira talaia horretara. Beste batzuk, ordea, beren gogoaren kontra “harrapatuta” daudela suma daiteke: bi haur negar zotinka ari dira Cimadevillako jolas parkean, amaren magalean. Txakurren zaunkarik ez da entzuten, gure harridurarako. Burrunba hauek jasan ezin dituzten eta aniztasun funtzionala duten pertsonekin edo aitona-amonekin gogoratu gara, hegazkinen joan-etorri hauen zartakoa zinez su artifizialen edo ferien inpaktua baino sei edo zazpi bider bortitzagoa baita. Gero irakurri dugunez, 2019ra arte jaialdi honen aurkako protesta bat edo beste burutzen zen, baina aurten ez dugu ezer aurkitu. Ondorengo egunean Foro Asturiaseko alkateari irakurri diogu: «Ikuskizun paregabea izan da». Eta euskal herritarrak izateaz harro sentitu gara. •

Teoriak eraberri-tu behar ditugu, praktika berriak asmatu... espazio eraldatzai-leetan zenbat aldiz aipatzen ote dira ideia horiek! Bada, “Eraldaketarako teoriak zorrozten: Pentsamenduaren bidez praktikak berri-tzen” izenburupean, horretarako jardunaldia antolatu zuten berriki UEU, Badalab (Hizkuntza Berrikuntza Labo-rategia) eta TEKS (Teknologia libreak eta Ekonomia sozial eraldatzailea) elkarteak. Uztai-laren 13an izan zen, Erretereria-ko Torrekua eraikinean (edo «saunan», txantxetan esan zu-ten bezala), eta hizlariez gain, askotariko 30 lagun inguru – ikerlariak, aktibistak, sortzai-leak...– elkartu ziren.

Joxe Azurmendi hil berria gogoan –minutuko burrunba egin zen haren omenez–, ha-ren esaldia kokatu zuten pla-zaren erdigunean: «Mundua eginez egiten dugu gure bu-rua». Eta hizlariak zein parte-hartzaileak halaxe ibili ziren, munduko teorien arabera gu-re buru eta gorputzak birpen-tsatzuz, eta alderantziz, gure buru eta praxien baitan mun-dua berreginez.

Hizlari horietako bat Danele Sarriugarte (Elgoibar, 1989) idazle, itzultzaile eta kazetaria izan zen. Mugimendu queer edo kuirra ardatz hartuta, ho-rren genealogia egin eta orain eta hemengo erronka zeha-tzak landu zituen.

ZER DA QUEER?

Azken boladan askotan aipa-tzen da ‘queer’ kontzeptua. Ba-tzuek iseka bezala erabiltzen dute –ditxosozko *woke* eta postmoderno kontzeptuei lo-tuta, gehienetan–; beste ba-tzuek, aldiz, gutxiespen siste-

QUEER-ETIK KUIRRERA

Sarriugarte: «Hizkuntzaren ardatza sartu behar da; kontua da nola»

 **JENDARTEA** / Mikel URDANGARIN IRASTORZA

«Eraldaketarako teoriak zorrozten: Pentsamenduaren bi-dez praktikak berri-tzen» jardunaldia egin da berriki. Ber-tan, Danele Sarriugarte idazle eta itzultzailea queer edo kuir mugimenduaz aritu zen. Kuirrak «molestatu» egin behar duela aldarrikatzeaz batera, «beste borrokekin aliantzak egitea» jo zuen erronka nagusitzat.

matiko horren aurkako palan-ka modura.

Zer da, ordea? Orube baten bila, Amaia Alvarezek “Genero ariketak” liburuan egin zuen definiziora jo zuen Sarriugar-tek: «‘Queer’ hitzaren jatorriz-ko esanahia ‘arraroa’ da, eta ingelesez gay eta lesbianak iraintzeko termino bat zen. Hala ere, 1990eko hamarka-dan AEBetan sexualki norma-tiboa ez zen guztia izendatze-ko hartu zuten termino hori eta esanahi berriz hornitu; modu horretan, lehendik zuen konnotazio negatiboa positi-bo bihurtuz eta hitz horrez birjabetuz. Hortik sortu zen queer teoria, kultura edo mu-gimendua deritzona, hetero-normatibitatea salatzeke espazio politiko bat, identitate transgresoreen aldeko ekime-na». Hau da, jatorritik gaur ar-te, irain bat eta eta horri buel-ta emateko ahalegina biltzen dira ‘queer’ kontzeptuaren baitan.

Teoria eta praktika multzo hori funtsezko hipotesi batean oinarritzen da: «Identitate se-xuala, genero identitatea eta joera sexuala eraikuntza sozia-

lak dira; beraz, generoa nahiz sexua historikoak eta aldaga-rriak dira, eraikitakoak, asma-tutakoak».

KALEAN ETA UNIBERTSITATEAN

Jakina denez, eraikuntza hori gorputz zehatzetan hezurma-mitzen da. Sarriugartek azaldu zuenez, hain zuzen, horrek eragindako hersturen aurka piztu zen queer mugimendua: «Kalean sortutako mugimen-du bat, akademian eta uniber-tsitateko korridoreetan ere ibilbide oso luzea izan duena». Horren froga gisa, militante queerrek egindako borroka ugari aipatu zituen. Aurrekari moduan, ezinbestean, 1969an Stonewallen lehertutako ma-txinada nabarmendu zuen, «sexu askapenaren mugarri historikotzat» hartzen baita. Itzultzailearen esanetan, «per-tsona batzuk beraien aurkako etengabeko sarekada, jazarpen eta biolentziarekin oso neka-tuta zeuden, men egiteari uko egin zioten, eta poliziaren ja-zarpenari aurre egin zioten».

Queer mugimendua, baina, ez zen jarraian sortu. 1990eko hamarkadan sortu zen, zehaz-

ki, eta tarteko bi hamarraldi horietan hainbat krisialdi izan ziren: «Hiesaren krisia, femi-nismo heterozentratu, zuri eta kolonialaren krisia, gay kultu-ra sortu berria sistema kapita-listak berera ekarri izanak era-gindako krisialdi kulturala...». Alegia, «gay mugimenduak joera asimilatzaile handia har-tu zuen, eta neoliberalismoa-ren indartze momentu oso sendoa ere izan zen», Sarriu-garteren hitzetan. Ondorioz, «matxinada bat izatetik dolar arrosaren eremura izatera pa-satu zen».

Hortik abiatuta, queer mugi-menduaren sorrera ez zen joe-ra horren segida bat izan, bai-zik eta horren aurkako matxinada: «Batetik, normali-zazio eta asimilazio nahi ho-rrren kritika dago, ‘queer’ hi-tzak arazoak ekartzen baititu. Horren bidez, amorrua ere adierazten da, ‘gay’-k ingelesez ‘pozik, alai’ esan nahi baitu. Eta horren aurrean esaten da: ‘Zure lagunak hiltzen eta ka-lean jipoiak ematen ari zaizki-zunean, ez zaude pozik, hase-rre baizik’. Beraz, ‘queer’ erabiltzea modu bat da esate-ko ez dugula zertan atseginak eta xarmagarriak izan mundu heteroan bizitza diskretu eta marjinalizatu bat izateko. Bes-talde, queer-ak ez dauka gizo-naren osagai hori. Azkenik, ‘queer’ erabiltzen da gogora-tzeko etsai handiago bat dau-kagula, gure diferentziak mo-mentu batez albo batera uzteko, eta gure etsaiari aurre egiteko. Homofoboaren arma bat da, bere kontra erabiltze-ko», Sarriugarteren esanetan.

Ahalegin horretan, uniber-tsitatean eta teorian ere gara-pena sekulakoa izan da: Simo-ne de Beauvoirren aurrekaria, Monique Wittig, Judith Butler... Sarriugarteren ustez,

«Euskal Herriko mugimenduan eta teorizazioan ere egon da eragin bat. AEBetatik dator, eta badakigu zein den indar korrelazioa, baina baze- goen Euskal Herriko mugimendu bat horretaz beste kontzeptu batzuekin pentsatzen ari zena». Esplizituki, baita kontzeptu horiekin ere. Sarriugartek, besteak beste, Medeak mugimendua, “Desira desordenatuak” lan kolektiboa eta Txalaparta argitaletxeak egindako «apustua» (“Transfeminismos”, “Porno terrorismo”, “Sexual Herria”...) aipatu zituen.

ORAIN ETA HEMEN

Gaur egunera etorrita, Sarriugarterentzat «iraina geuretzek» oso presente egon behar du: «Kuirra bollera da, asteriskoa da, okerra da...». Euskal Herriko hainbat talde zerrendatuz –Kuir Eztanda, Oreretako Kuirdinadora, Gazte Feministak, Lea-Artibai eta Mutrikuko Desbiauk, Gernika-Luma...–, kuirrak «molestatu» egin behar duela aldarrikatu zuen. Busturialdeko zirto bat bota zuen adibide bezala, publikoaren algara artean: «‘gay’ ingelesez ‘pozik’ da eta euskaraz ‘gai’ izatea bezala ahoskatzen da. Bada, bollera, marika, bi edo dena delakoa direnei ‘kapazak’ deitzen diete eta heteroei, ‘inkapazak’».

Elgoibartarrak «erronka eta arrisku batzuk» ere plazaratu zituen. Bere ustez, «beste borrokekin aliantzak nola egin da erronka nagusia», queer gisa kokatzeak zurtasunetik ez zaituela salbuesten gogoraraziz. Bestalde, turistifikazioaren inguruko arriskuez ohartarazi zuen: «Askatasuna ez da kontsumitzen, borrokatu egiten da» baieztatu zuen, Donostia-ko Koordinadora Transmari-



kabollo Feministaren esanetara joaz.

Eta euskara?, galdetu zuen Sarriugartek berak. Bere iritziz, «talde horiek euskaraz egiten dute beraien jarduna, euskaraz daude pentsatuta ‘Bekatueros’, ‘Okerra’, ‘Lumak zorroztu’... Baina ez lirateke, agian, euskaltzale bezala definituko, nahiz eta hori gertatzen den modu interseksional batean. Esan nahi dut euskaltzaletasuna ez dagoela temati-

Danele Sarriugarte aurkezpenean, Alba Garmendia moderatzailea eta Mijo Lizaraburu solaskidea alboan dituela.
Jon URBE | FOKU

‘Queer’ hitzaren jatorrizko esanahia ‘arraroa’ da, eta ingelesez gay eta lesbianak iraintzeko erabiltzen zen. Horren aurrean, queer mugimendua hitzaz birjabetzen saiatu da

«‘Bekatueros’, ‘Okerra’, ‘Lumak zorroztu’... euskaraz daude pentsatuta. Baina, agian, ez lirateke euskaltzale bezala definituko, nahiz eta hori modu interseksional batean gertatu»

zatuta. Esaterako, ekainaren 28ko irakurketetan Hernaniko erasoan edo turistifikazioaren inguruko irakurketak agertu ziren bezala, agian, euskararena ez dela denetan agertzen, nahiz eta gero ekintza eta erabaki batzuetan hori presente dagoen. Adibidez, talde horietan inori ez litzaioke okurrituko komunikatu bat gatzeleraz bakarrik irakurtzea. Edo inork ez du esango ‘aquí, en España’», argitu zuen Sarriugartek aurrerago.

Hizkuntzaren garrantzia nabarmendu nahian, Maria Reimondezen aipu bat ekarri zuen: «Hizkuntzaren aldagaia txertatu ezean, munduko emakumeen gehiengoa kanpoan uzten dugu, eta hesi bat sortzen dugu: hizkuntza hegemonikoa ezagutzen baduzu, sar zaitezke, eta, bestela, zuri gertatzen zaizuna ez zaio inori interesatzen, bitartekariren

bat agertu ezean». Beraz, Sarriugarterentzat, «hizkuntzaren ardatza sartu behar da, baina erronka da nola sartuko dugun».

Hori pentsatzeko, Mari Luz Estebanen “Teoria makettoa” olerkia irakurri ostean, honako gogoeta hau pausatu zuen: «Ni etorri zirenetako batzuen alaba naiz, eta hemen nago zuekin euskaraz hizketan. Nire aita ez zen etorri, bere aita eta aita eta aita elizate berean bizi izan ziren, baina euskararekiko grina piztu didana ez da bereziki nire aita izan. Beste batzuen kasuan hala izango da. Euskararekiko kezka oso zilegi dira –badago beldur bat, eta nik ere badut–, baina iruditzen zait arriskutsua dela nondik heltzen zaien». Bere irudiko, binarismo eta unibertsalismo abstraktuen aurrean, era «kokatuan» heldu behar zaio auzi horri ere.

MATERIALISMO BERRIAK

Lizarzaburu: «Arrak eta emeak ez dira existitzen, gizonak eta emakumeak bai»

Aurreko analisisian azaldu dugunez, queer teoriaren arabera «generoa nahiz sexua historikoak eta aldagarriak dira, eraikitakoak eta asmatutakoak». Zer esan nahi du horrek? Eraikuntza horretan, gorputzak zenbateraino dira naturalak eta zenbateraino kulturalak? Hor zer da materiala eta zer immateriala? Baieztapen horren bueltan halako galderak sortzen dira normalean, baita horren arabera-ko erantzunak ere.

Mijo Lizarzaburu (Ondarroa, 1998) filosofo eta militante transfeministak, baina, galdera bera jarri zuen auzitan. Izan ere, «ezer ez da naturala, eta ezer ez da konstrukto kulturala. Dena batera ematen da». Hori azaltzeko asmoz, GAUR8ko kolaborazioetan bezain zorrotz, materialismo berrien inguruko «sarreratxo *friendly*» bat egin zuen.

MUNDU ZATIKATU ETA XARMAGABEA
Lizarzabururen arabera, natura/kultura eta horri lotutako dikotomiak Mendebaldean erabat sustraituta daude. XVI. mendetik aurrera, gainera, biak oso era zurrunean bereizten dira.

Batetik, natura kokatzen da, «materia hila, lege mekanikoen bidez funtzionatzen duena» bezala ulertuta. Lizarzabururentzat, definizio horretan mugarria izan zen Newtonen grabitazio legea: «Hori garaian pasada bat izan zen: derrepen-tean gizakiaren arrazoimenak naturaren osotasun eta handitasuna lege bakar batera murriztu zuelako». Bat-batean, natura, osotasun organiko eta miragarri bat baino, makina erraldoi eta hotz bat zen:

 **JENDARTEA** / Mikel URDANGARIN IRASTORZA

«Eraldaketarako teoriak zorrozten, pentsamenduaren bidez praktikak berritzen» jardunaldian Mijo Lizarzaburu filosofoak ere parte hartu zuen. Natura/kultura eta beste hainbat dikotomia birjosten saiaturaz, «emakumetasunaren materialtasuna ez dago aluetan, komun garbietan baizik», aldarrikatu zuen.

«Webberren hitzak erabiliz, ilustrazioaren programa munduaren xarma haustea zen».

Gizakiak, baina, galaitzat zuen bere burua, eta ezin zuen onartu materia hila izatea, ezta xarmarik gabea izatea ere. Beraz, «zer izango da ‘izpiritua’ duen gauza bakarra? Gizakia. Orduan, gizakia hilik dagoen mundu erreal bateko bizirik dagoen izaki bakar bezala gertatzen da». Gizakiak arrazoi dohatsua omen baitu, «entitate immaterial jainkotiar hori, materialaren domeinuaren agente egiten duena».

Hortaz, horra hor oraindik ere indarrean dagoen dikotomia: kultura, batetik; natura, bestetik. Kultura, askatasunaren erreinu izpiritual gisa; natura, halabeharraren eta aldaezintasunaren definizio bihurtuta.

MUNDUA BIRJOSI

Lizarzaburuk azaldu zuenez, «materialismo berriek logika dikotomiko hori apurtu nahi dute, mundua berriz liluratzeko». Korrontearen izenak adierazten duen moduan, «bereiziki dikotomien zentroa den materialaren eta immaterialaren artekoarekin» amaitzea da xedea, baina baita horri lotutako «bizia eta hila, gorputza eta arima, pasiboa eta aktiboa, naturala eta kulturala, gizakia eta

animalia, animalia eta makina» eta beste hainbatekin ere.

Nola egin? Batetik, materialtasuna aintzat hartu beharra azpimarratu zuen Lizarzaburuk: «Urte asko pasatu ditugu kuirrek ‘eraikuntza soziala’ defendatzen. Jakina, baina momentu batean Karen Baradek esan zuen: eta non geratzen da materia? Testosterona hartzen baduzu, aldaketa materialak gertatzen dira. Ez dut esan nahi gizon edo emakume egiten gaituenik, baina aldaketa materialak ematen dira. Hau da, badago munduaren materialtasun bat, praktika diskurtsiboekin batera eratzen dena, baina ezin dena praktika diskurtsiboetara erreduzitu».

Alegia, gizakia ez da izaki izpiritual hutsa, materialtasun hori kontuan hartu behar du. Lizarzabururentzat, baina, horrek ez du esan nahi determinismo biologiko moduko batera itzuli behar denik, gizakia materialtasun horrek goitik behera determinatutako izaki aldaezina balitz bezala. Izan ere, materia bera indeterminatua da: «Harreman-sare konplexu hori da, mundua bere burua egiteko autoeraketa etengabeko batean». Alegia, materia jada ez da aldaezina;

Natura/kultura, materiala/immateriala, gizakia/animalia... «materialismo berriek logika dikotomiko hori apurtu nahi dute, mundua berriz liluratzeko»

«Arraza ez dago azal kolorean, baizik eta Frontexen. Jarritako harresietan, kanporatzeko inbertitutako diru guztian, Atzerriartasun Legean, poliziaren jazarpenean...»

erlazioen multzoa denez, erlazioak aldatu ahala materia ere etengabe autoeratzen eta eraldatzen da.

Hortaz, X zer da, naturala edo kulturala? Lizarzabururen iritziz, ezin dira bata eta bestea guztiz bereizi, kulturen naturak zerikusi nabarmena duela-ko, eta alderantziz, natura elkarrekinza kultural horretan mamitzen delako.

IDENTITATEEN MATERIALITASUNA

Material eta immaterial arteko dikotomiak emantzipazio mugimenduetan ere eragiten du. Lizarzaburuk zenbait adibide ezagun aipatu zituen: «Borroka materialak eta identitari-rioak, birbanaketa eta aitortza kulturala, batzuek ogia eta besteek arrosak...».

Ondarrutarrak osoko emendakina egiten dio horri: «Materialak dira identitate guztiak, ez bakarrik langile klasea». Adibidez, «emakume eta gizon identitateak esklabotza harreman batean oinarritzen dira, non emakumeek doako lana egiten duten gizarte osoarentzat eta denbora guztian. Emakumetasunaren materialtasuna ez dago aluetan, komun garbietan baizik».

Filosofoaren esanetan, biologikoki nahiko erraza da arrak eta emeak ez direla existitzen frogatzea: «Zerk definitzen ditu? Gameto ezberdinak produzitzeko gaitasunak. Hau da, gizakien kasuan, obuluak eta espermatozoideak produzitzeko gaitasunak. Animalia guztien artean dagoen diferentzia da ‘ar’ deitzen diogula gameto txikiak produzitzen dituenari, eta ‘eme’ deitzen diogula gameto handiak produzitzen dituenari. Hori klasifikazio forma material bat da, baina beste hogeitaka egin daitezke. Orduan, kategoria espezifikoak

goak sortu daitezke, beste aldagai pila bat kontuan hartzen dituztenak eta medikuntza eta biologia ona egiteko erabilgarriagoak direnak».

Ados, beraz, arrak eta emeak ez dira existitzen... baina «gizonak eta emakumeak, noski, existitzen dira!», aldarrikatu zuen Lizarzaburuk: «Oxala

ezetz, baina noski! Askotan kontrako eskema aplikatu dugu: gizonak eta emakumeak ez dira existitzen; arrak eta emeak, bai. Ez, ez, ez. Existitzen direnak gizon eta emakumeak dira, existitzen direnak komun garbiak dira». Horren ondorio materialak zerrendatu zituen: emakumeek gizonek baino lo

Mijo Lizarzaburu,
'Eraldaketa teorian
zorrotzen,
pentsamenduaren bidez
praktikak berritzen'
jardunaldian. Gaur egun
Materialismo Berrien
inguruko doktore tesia egiten
ari da.

Jon URBE | FOKU



gutxiago egiten dute, pastilla gehiago hartzen dituzte, antsietate maila handiagoa dute...

Kulturaltzat jotzen diren beste kategoria sozialen kasuan ere beste horrenbeste: «Adibidez, ni lodi egiten nauena nire bolumena eta pisua da? Bestea 'diska' egiten duena bere gurpildun aulkia da? Ez. Ni lodi egiten nauena autobuseko eserleku txikiak dira; bestea 'diska' egiten dutenak, berriz, eskailerak. Kontua da ez dela ez zure bolumena eta pisua – hori ere existitzen da, noski –, ez zure oinez egiteko gaitasun eza, baizik eta horren, arkitekturaren eta arau sozialen arteko harremana. Arrazarekin gauza bera pasatzen da. Arraza ez dago azal kolorean, baizik eta Frontexen. Jartzen ditugun harresietan, kanporatzeko inbertitutako diru guztian, Atzerriartasun Legean, poliziaren jazarpen bakoitzean...».

EUSKAL NAZIO QUEERRA

Eta hori nola lotzen da hizkuntzaren eta nazioaren borroka-ekin? Galdera hori zeharlerrokoa izan zen jardunaldian eta Lizarzabururi ere luzatu zioten.

Horri erantzuteko, ondarrutarrak anekdota bat kontatu zuen: «Apirilean 'Orgull Crítico' jardunaldi transmaribibollo estatutetara joan ginen, Valentziara. Eta han, *ostras*, oso euskaldunak ginen. Usaindu egiten da. Adibidez, ikusten genuen Euskal Herrian ez daudela horrenbeste makro-hiri, eta orduan dauzkazun arazoak ez direla hain sofistikatuak». Itxura denez, ezta guztiz berdinak ere. Adibidez, halako batean, «andaluziarrak etorri ziren, eta esaten zuten: 'Guk ezin dugu antolakuntza transmari-bollo bat eratu hemen, jendea kanpora joan behar delako la-

nera'. Eta orduan, sare horiek indartzea eta guk esku bat botatzea eskatzen zuten». Denek buruarekin baietz esaten omen zuten, baina zalantza beteta: «Asko sentitzen dut. Ni Andaluziako kuirren alde topera, baina ikuspegi internazionalista batetik».

Txanponaren bestaldean, «Iparraldeko adibideak ere etortzen zaizkit. Bollotopaketa euretako bat etorri zen, esanez: 'Ni orain gaztea naiz eta joan naiteke Hegoaldera zuek ikustera, zahartzen naizenean etorriko zarete ni Iparraldera ikustera? Zuek ez zarete etorriko'. Eta super-kontziente naiz horretaz. Ni queer nazioaren parte sentitzen naiz eta eraiki nahi dut tipa horrekin batera, ez Andaluziakoekin batera –onena opatuta, eh!–», nabarmendu zuen Lizarzaburuk.

Nazio horrek, queerra izango bada, botere ardatz ezberdinak hartu beharko ditu aintzat. Zentzu horretan, ardatz bakoitzarentzat kategoria propioak erabiltzeko proposamena egin zuen: «Askotan esaten dugunean Euskal Herria kolonia bat dela, edo kolonialismoaren menpe egon dela, problematikoa iruditzen zait. Uste dut oso erraz konpondu genezakeela matiz terminologiko batekin, kolonialismoa eta nazio zapalkuntza bereiziz. Nazio zapalkuntzak ez du inondik inora ukatzen hemen egon den indarkeria –tortura, kartzela...–, baina matiz hori interesgarria da. Hitzak behar ditugulako azaltzeko zergatik nik EHUn ezin dudan Filosofia gradua euskaraz amaitu, eta zergatik nik Filosofia gradua egiten dudan bitartean emakume langile latino batek zaintzen dituen nire haurrak. Eta bientzat termino bera erabiltzen badugu, problematikoa da».

{ gertuko
planak }



Gipuzkoa / Azpeitia

Trenaren Euskal Museoa, gure historia hurbilera bidaia

Asier AIESTARAN

Lurrun trenean
bidaia da Azpeitiko
museoaren eskaintza
ezagunena.
Andoni CANELLADA | FOKU

Azpeitian kokatuta dagoen Trenaren Euskal Museoa sekulako altxorra da garraibide honen sekretu eta bitxikeriak deskubritzeko. Bisitari gehienak Azpeitia eta Lasao artean joan-etorria egiten duen lurrun trenean ibiltzera gerturatzen badira ere, museoak burdinbidearen historia ezezagun bezain kurio-soa ezagutzeko balio du, eta Euskal Herrian trenak izan zuen garapen aitzindariaz jabetzeko.

«Museoaren izarra lurrun trena da: antzinako lokomotora batean ibiltzea, XIX. mendekoan, ikatza erretzen eta lurrunaren indarrarekin. Baina hemen trenaren ondare eta xarma guztia jasotzen saiatu gara, Euskal Herrian jada 170



i jakinbeharrekoak

Museoa Azpeitiko Julian Elorza kalean dago, herriko tren geltokia zen eraikinean. Astelehenetan eta igande arratsaldeetan itxita egoten da.

Jende gehien erakartzen duten lurrun treneko bidaia igande eta jai egunetan 12.00etan eta larunbatetan 12.00etan eta 17.30ean izaten dira.

Museoko sarrerak 3 euro balio ditu eta lurrun treneko bidaia gehituta, 6 euro. Telefono zenbakia 943 15 06 77 da eta e-maila, museoa@euskotren.eus

bat urteko historia duena», argitu digu Juanjo Olaizola museoko zuzendari eta trenaren historiaz hainbat liburu idatzi dituen ikerlariak.

«Alde batetik kokapena aipatu behar da: antzinako geltokia da, Ramon Cortazarrek egina eta arkitektura berezia duena, “euskal estilo berrikoa”. Eta gero bildumak ditugu. Noski, jendeak trenak aurkitzea espero du: lokomotorak, bidaia-erien bagoiak... Baina tranbiak ere baditugu, trolebus bat, 1922ko suhiltzaile kamioia...», ekin dio Olaizolak bisitariak aurkituko dituen perlak zerrendatzeari.


«Beste altxor berezi bat hemen dugun lantegia da. Azpeitia Urolako Trenaren bihotza zen eta hemen 1925ean lantegi bat kokatu zuten. Tren honen arazoa izan zen ez zutela zentimo bat ere gastatu berritzen. Horregatik, trena itxi zenean, lantegiak lanean jarraitu zuen eta ordurako fosil bat zen. Hori mantentzea lortu genuen, zegoen bezala; motor bakarrarekin 16 makina-erreminta mugitzen ditu. Gainera, Euskal Herrian oso sektore garrantzitsua izan da hori», gehitu du.

Horrekin batera, azpi-zentral elektrikoaren balioa ere nabarmendu du. «Hemen lurrun trenak ditugu, baina Urolako Trena hasieratik elektrikoa izan zen. Bere azpi-zentrala ikustea ‘Metropolis’ edo antzinako beste film batean sartzea bezalakoa da», dio Olaizolak, azken bi bildumak aipatu aurretik, «Europa mailan ia bakarrak».

«Bat erlojuena da. Trena hartzerako garaian beti izan da oso garrantzitsua zehaztasunez jakitea zer ordutan bizi garen. Trena sortu zen garaian ez zegoen halako zehaztasunik. Horregatik oso garrantzitsua izan zen trenarentzat ordua kontrolatzea. Hemen bilduma oso berezia daukagu, geltokietako ia 30 erloju biltzen dituen, eta poltsikoko beste 200 inguru ere bai, langileek ere ordua jakitea garrantzitsua zelako», dio lehenaz. «Bestea tren langileen uniformeena da. Zaharrena 1862koa dela uste dut. Dotore joateko modu bat da, baina baita autoritatea erakustekoa ere».

IRAULTZA INDUSTRIALAREN SINBOLO

Leku askotan irakur daiteke Urolako Trena izan zela espainiar Estatuko lehen tren elektrikoa, baina Olaizolak argitu digu datua ez dela zuzena. «Urolako Trena 1926an jarri zen martxan. Kuriosoena da Estatuko lehen tren elektrikoa Gipuzkoan izan genuela. 1902an, 24 urte lehenago. Oso tren txikia zen, Ategorrietatik Uliara igotzen zena; hiru kilome-



Juanjo Olaizola, museoko zuzendaria eta trenaren historiaz hainbat liburu idatzi dituen ikerlaria.
Aritz LOIOLA | FOKU

tro bakarrik zituen. Baina hura izan zen lehen tren elektrikoa Estatu guztian. Aldez aurretik tranbiak hasi ziren elektrizitatearekin ibiltzen. Eta hor ere Estatuko lehen tranbia elektrikoa Euskal Herrian ibili zen: Bilbotik Santurtzira joaten zena, 1896an. 1897an, bestalde, Donostiatik Errenteriarra joaten zena. Eta legalki tren bezala izendatutako lehena, 1902an Uliara igotzen zena. Eta 1903an, Donostiatik Hernanira joaten zena. Hori 1958an desagertu zen, baina zati bat ez: Amaratik Loiolarakoa. Eta gaur egun ere, zati hori da, Amara eta Loiola artekoa, Estatuko tren elektriko zaharrena eta martxan jarraitzen du».

Izan ere, trena iraultza industrialaren gorabeherak ulertzeko adibide bikaina da. «Esan daiteke trena dela iraultza horren sinbolo indartsuena. Iraultza industrial, alde batez, siderurgia da. Eta trenean dena zen burdinazkoa: errailak, lokomotorak eta abar. Eta, beste aldetik, lurrun motorra, horrek eman ziolako lehen bultzada iraultza industrialari. Trenak biak ditu. Gero, noski, trenak bere trantsizioa egin du», gogoratu du museoko zuzendariak.

Hori bai, garai hartan iraultzailea izan bazen ere, eta gaur egun miresmen handiz begiratzen badiogu ere, lurrun trena ez zen batere eraginkorra. «Lurrun motorra ikusgarria da: bielak, zarata... Nostalgikoa da. Baina, egiari zor, berez, oso txarra da. Gure lokomotorak 200 zaldi ditu, gaur egun go kotxe on baten paretsu, eta pentsa kotxe batek zenbat pisatzen duen, tona bat inguru, eta tren batek zenbat pisatzen duen garai hartan, 35 tona agian».



Uxue LLANO-ABASOLO

Ikerlaria Bilboko Hezkuntza Fakultateko Bilakaeraren eta Hezkuntzaren Psikologia Sailean. PSIDES ikerketa taldea

Erronkak hezkuntzan: ziberindarkeria bikote-harremanetan eta pornografia kontsumoa

Internetarako sarbide goiztiar eta orokortuak erronka berriak ekarri ditu, eta horien artean nerabeen bikote-harremanetan eman ohi den ziberindarkeria dugu. Indarkeria mota horren helburu nagusia bikotekidea-renganako kontrola ezartzea da, beste pertsona kaltetuz. Sare sozialetan bikotekidearen profila berrikustea, mezu iraingarri edo mehatxatzaileak bidaltzea edo pasahitzen erabilera desegokia ziberindarkeria oinarri duten jokabideak dira, besteak beste.

PSIDES ikerketa taldeak 12 eta 17 urte bitarteko Euskadiko 409 neraberekin ziberindarkeria oinarri duen ikerketa bat aurrera eraman du, eta ikerketak nerabe askok normalizatuta eta barneratuta dituzten portaerak mahaigaineratu ditu. Datuen arabera, bikotekidea izan duten parte hartzaileen %67,1ek (114, guztira) bikotekidearen aurkako ziberindarkeria burutu izana aitortu du. Hamar nerabetatik seik bikotekidea kontrolatu du mugikorraren edo sare sozialen bidez. Parte-hartzaileen %63,3k (112), noizbait ziberbiktima izan dela aitortu du.

Ziberindarkeriaren agerpen goiztiarren aurrean, prebentzio programa bat (CDAStop) diseinatu zuen PSIDES ikerketa taldeak. Programak 12 saio ditu, hiru modulutan banatuta: (i) gizarte-trebetasunen lanketa, (ii) bikote-harremanei buruzko ezagutza eta (iii) ziberindarkeria bikote-harremanetan. Halaber, zeharkako modu batean, autoestimua, enpatia, generorolak eta sexismoa lantzen dira, baita maitasun erromantikoen mitoak ere. Metodologia parte-hartzailea eta dinamikoa da, eztabaidak, talde-lana, kasu-praktikoak eta antzerkigintza oinarri hartuta.

CDAStop programaren eraginkortasuna ebaluatzeko, parte-hartzaileak

bi taldetan banatu ziren: esku-hartze taldea (236) eta kontrol taldea (137). Esku-hartzea baino lehen eta ondoren, bi taldeen arteko emaitzak alderatzeko test-ak egin ziren. Emaitzek agerian utzi dute esku-hartzea izan duen taldeak ziber-biktimizazioan maila altuagoa aurkeztu duela, eta hori testuinguru digitalean abusu-jokabideak identifikatu eta ezagutzeko gaitasunarekin erlazionatzen da. Ziberindarkeriaren inguruko pertzepzioan eta bikote-harremanetako gatazken konponbide-estrategietan ere aldaketak hauteman dira. Emaitza kualitatiboak norabide berean doaz: indarkeria oinarri duten jarrerak identifikatu eta prebenitzeko lagungarria izan zitzaizela adierazi dute.

Nerabeekin harreman zuzena izateak online-pornografiaren kontsumoa ohikoa dela identifikatzera eraman ditu PSIDES taldeko ikertzaileak. Gaur egun, Euskadiko nerabe eta gazteen online-pornografiaren kontsumoaren zeharkako azterketa egitea helburu duen ikerketa abian dute. Online-pornografia gaur egungo merkatuan nagusi da eta, genero estereotipoak sustatzeaz gainera, bikotekideen arteko baimen eza eta antzeko eszenak barne hartzen ditu.

Interneten erabilera, anonimotasun eta kontrol ezak bultzatuta, gero eta adin txikiagotan eman ohi da. Erabil-



Ikasleak eskolara heltzen. A. LOIOLA | FOKU

tzaileek eduki pornografikoak zeharkako modu batean topatzen dituzte: webgune batzuetan sartuz gero, automatikoki eduki sexuala barne hartzen duten iragarkiak agertzen zaizkie. Aldez aurreko bilaketa aktiborik gabeko pornografiaren agerpena kezagarria da, bereziki, umeen Internetarako sarbidea normalizatuta dagoen testuinguru honetan.

Pornografiaren kontsumoak berekin dakartzan aurreiritzi zein distortsioek nerabeen heltze-prozesuan eragina izan dezakete. Pornografia bera arazoa den arren, hezkuntza afektibo sexuala oinarri duten esku-hartzeak ezinbestekoak dira kontsumoa murriztu eta ekiditeko. Bestela, webgune pornografikoak ikasleen sexu-informazio iturri bilakatuko dira.

Hezkuntza afektibo-sexuala ez da soilik sexu-organoen inguruko ezagutzara mugatu behar. Indarkeria sexualaren prebentzioa, desira, komunikazioa, enpatia, adostasuna, plazera, norberaren zaintza, autoestimua eta autokontzeptua barne hartu behar ditu. Ikasleek pornografia modu kritikoan aztertzeke gaitasuna eskuratu behar dute. Formakuntza horrek, ikasleen garapen pertsonalean ez ezik, genero berdintasunean ere eragina dauka. Save The Childrenek egindako ikerketak agerian utzi du EAEn hezkuntza afektibo-sexuala lantzen duten programak dauden arren, eskolek ez dutela landutako informazioa modu uniformearekin jasotzen, ez baitira derrigorrezkoak.

Bikote-harremanetako ziberindarkeriak eta nerabe zein gazteen online-pornografia kontsumoaren inguruko datuek agerian utzi dute hezkuntza afektibo sexuala ez dela hitzaldi batera mugatu behar, baizik eta ikasleen ikasketa prozesu osoan zehar, modu etengabearekin, landu behar dela. •

{ koaderno } Iker BARANDIARAN

Paperik ez (2)

Badira 15 bat urte ikerketa batek jakinarazi zuenetik Gipuzkoa zela European, boto emaile ezkertiar portzentaje handia izan arren, eskumako lerro editoriala zuten eta duten hedabideak kontsumitzen zituen lurralde bereizgarria. Paradoxikoa zen emaitza eta arrazoiak aztertzeko premia azaleratu zen.

Ez nuen ondorengo azterketaren berri izan, baina ziur nago datu horietan zeresan handia zuela eta duela Vocento taldearen “El Diario Vasco” egunkari sakrosantuak, Francoren altxamendua publikoki ospatu eta hauspotu eta gaur egun oraindik ere haren omeneko eskelak argitaratzen dituenak.

Goebbels-en garaitik egindako marketing eta aurpegi garbiketa itzelaren ondorioz, Gipuzkoako hainbat etxetan “ohituragatik” hamarkada luzez presente egon denak, poliki-poliki, boterearen zuriketa eta kritikoak direnen kriminalizazioa landu ditu. Nola? Herri bakoitzeko tokiko albisteak egunero argitaratzeko 100 pertsonatik gorako lantaldea eratuz eta egun bat bai hurrengo ere bai Real Sociedad taldeari buruzko albisteak sortzen. Ai futbola... Horiek izan dira amuak hainbat eta hainbat erosle eta irakurleri eusteko, eta, hala, irakurleak kontserbadoreagoak bilakatze-ko ahalegin sutsua egiteko.

Izan ere, duela 25 urte Ulgor, Fagor eta abarren sortzaile Josemari Larrañagak hitzaldi publiko batean hedabide ilun honi buruz galdetuta, zera erantzun zion Mariano Ferrer kazetari handiak: «‘El Diario Vasco’ da Gipuzkoan eta Euskal Herrian inongo arazorik ez dagoela sinetsarazi nahi digun hedabidea». Hau da, irakurleei sustraia etara jotzea ukatzea du helburu, azalarekin gelditu dadin, gehituko nuke nik.

Gauzak horrela, azken bi hamarkadetan hedabide eta informazio kontsumoak izugarri aldatu dira gizartean. Horren adibide, badira dagoeneko urte mordo-ka egunkari saltzaile bati entzun nionetik pertsona

nagusi baten eskela ikusten zuen bakoitzean bazekielako “El Diario Vasco” bat gutxiago salduko zuela.

Gertaera eta albisteen testuinguruari garrantzia ematen ez diogun garai honetan, tamalez, oro har, ez du iturriak axola. Izenburuarekin nahikoa daukagu! Edozeinek bota edo argitaratu dezake edozer eta askok sinesten dute bere horretan, besterik gabe. Horrelakoak dira sareak onerako... eta txarrerako.

Horra hor *fake news* eta intoxikazio ugariren irismena, gazteek bereziki eta beste jende askok ere ez dituztelako hor jasotakoak inola ere kontrastatzen, egiaztatzen, ezta testuinguruan jartzen ere. Eskuma izugarrizko dirutza inbertitzen ari da sare sozialetan etekin izugarri onak ematen dizkiotelako: betikoak gure kontura are eta gehiago aberasten dabiltzala jabetu beharrean, gu okerrago bizitzearen arrazoiaren fokua etengabe etorkinetan jar dezagun.

Horien artean badira etorkinak gordinki jipoitu eta akabatu nahi dituzten talde oso arriskutsuak, eta ba-

«Badira etorkinak gordinki jipoitu eta akabatu nahi dituzten talde oso arriskutsuak, eta badira beste asko, gezurrekin etengabe etorkinak kriminalizatzen dihardutenak»

dira beste asko, gezurrekin etengabe etorkinak kriminalizatzen dihardutenak, atzetik etorriko direnen lehen aipatutakoak— lan zikina justifikatu eta lurzoru prestatzen dutenak. Eta modu soilean etengabe etorkinen kontrako gezurrak Gipuzkoan zabaltzen ari denetako bat gero eta presenteago dago sare sozialetan. Izen eta marka oso zehatza dauka eta baliabide sorta zein lantalde sendoa, nahiz eta marka horren atzean nor dagoen ez duten inoiz publiko egiten. Seguruenik, horrek zerikusi zuzena izango du egunkari salmenta jaitsiera izugarriaren aurrean lehengo “lana” egiten jarraitzearekin; hain zuzen ere, gipuzkoarrok nola edo hala otzandu ahal izatearekin. •



PANTAILA TXIKIAN

Gaizka IZAGIRRE BROSA

Telesail laburren aroa?

The Sopranos”, “The Wire”, “Lost”, “Breaking Bad”, “Six Feet Under” edo “Better Call Saul” bezalako izenburu enblematikoez aro bat zizelkatu zuten: urteetan zehar garatzen ziren istorio handien garaia, non tramak patxadaz hedatzen ziren eta pertsonaiek beren bidea, mina eta eboluzioa denboraren hari finarekin ehuntzen zuten. Gidoiek zorrotasunez eta maisutasunez josita, dena zetorren bere erritmoan, presarik gabe.

EGUNGO KONTSUMO EREDUA

Gaur egungo joerak, ordea, erabat aldatu dira: eduki luzeak ikusteko ezgaitasuna gure gizartean nagusitzen ari da. Telesail luzeek gero eta leku gutxiago dute gure bizimodu azkar, efimero eta sakabana-tuan; dena orain nahi dugu, labor eta trinko kontatua, klik bakarrean harrapatuko gaitue-na.

Azken urteotan telesail labur-rek hartu dute protagonis-moa. Narratiba amaigabeekin konprometitu beharrean, ikusleak esperientzia biziak bi-latzen ditu orain –emozional-ki indartsuak, narratiboki itxiak–, gau bakarrean irentsi eta egun askotan oroimenean geratzen direnak.

Plataformek begi onez har-tu dute joera hori, eta gero eta gehiago dira sei edo zortzi atal baino gehiago behar ez dituzten istorioen aldeko apustua egiten dutenak. “The Queen’s Gambit”, “Ado-lescence” edo “Baby Rein-

Urrun geratu dira “The Sopranos”, “Lost” edota “Better Call Saul” bezalako sei denboraldi baino gehiagoko telesailak. Eduki luzeak ikusteko ezgaitasuna gure gizartean nagusitzen ari den zerbait da, eta sortzaileak, horren jakitun, euren istorioak formatu laburragoetan eta trinkoagoetan kontatzen ari dira.

deer” bezalako lanek erakutsi dute formatu laburrak ez due-la zertan inpaktu txikia izan; ikus-entzuleen erantzuna, harpidedun berrien hazkun-dea eta sare sozialetako oihar-tzuna hain handiak izan dira, ezen streaming-aren erral-doiek norabide horretan arraun egitea erabaki duten.

Egia da, noizean behin, arra-kastarenugarra luzatu nahian gehiago luzatzen saia-tzen direla –“Squid Game” ho-rren adibide garbia da–, baina horrelako kasuak gero eta urriagoak dira.

Joera horren isla garbia, aur-ten estreinatu diren izenburu (oso gomendagarri) hauek:

Mobland

Skyshowtime eta Movistar

Londresen drogen trafikoa kontrolatzeko borrokan ari di-ren bi familien arteko liska-rrak (Harrigandarrak eta Ste-vensondarrak) kontakizun nagusiaren motorra piztuko du. Ikusleak sakon ezagutuko duena, eta bietatik protagonis-mo handiena norbereganatu-ko duena, Harrigan familia izango da: Harry Da Souza (Tom Hardy), Kevin (Paddy Considine), Bella (Lara Pulver), Eddie (Anson Boon), Seraphi-na (Mandeep Dhillon) eta fa-miliaren buruak diren Maeve (Helen Mirren) eta Conrad



(Pierce Brosnan) izango dira kideak. Eddie-k, gazteenak, eragindako liskar baten erruz, Harrigan eta Stevenson familiaren arteko borroka basatia hasiko da.

“MobLand” mafiari buruzko fikzio klasikoetatik aldentzen saiatzen da. Ohiko kontakizunek krimen antolatua erro-mantizazioa egiten duten bitartean, telesail honek eguneroko negozio zikinak eta indarkeria esplizitua erakusten ditu. Alde horretatik, ez da 70eko hamarkadako mafia giroko kontakizunetatik edaten duen proposamena; ukitu garaikideagoa du, umore beltz apur bat, eta zenbait unetan Guy Ritchi-ren estetika bereziaz blaitua dago. Argi-itzaletz jositik, baina lehen mailako entretenimendu duinaren eredu da. Sofan eroso eseri eta bizpahiru egunetan gozamenerako bidelagun ezin hobea bihurtuko da.

Smoke

Apple tv+

“Smoke” telesaila Firebug podcastean oinarritzen da modu librean, serieko bi pironaen istorioa azaltzeko. Detektibe oinazetu batek (Jurnee Smollett) eta eragindako su-teak ikertzen dituen polizia misteriotsu batek (Taron Egerton) helduko diote kasuari. Orainaldian girotuta, Dennis Lehane sortzaileak podcastaren materiala abiapuntutzat hartuko du, kasuaren bihotzean inspiratutako fikzioa eraikitzeko. Protagonistek ikertuko dituzten bi kasuek norabide desberdinak hartuko dituzte: bata «nork egin zuen?» galderari erantzuten saiatuko da, eta besteak «nola harrapatuko dugu?» ereduari jarraituko dio. Alegia,



batean erruduna ezezaguna izango da; bestean, ordea, ikusleak hasieratik ezagutuko du bere aurpegia. Bi ikuspegi narratibo horiek txandakatzeak erritmo bizia emango dio istorioari, baina, aldi berean, tarteka nolabaiteko deskonexioa sortzen du.

Hasieratik harrapatzen duen bizitasun handiko proposamena bada ere, narrazioak baditu gorabeherak: batzuetan anbigutasunak nagusitzen dira, eta zenbait une gehiegikerien

mugara iristen dira. Hala ere, aktoreen lan bikainak, istorioaren indarrak eta atmosfera bereziak udako telesail gomendagarrienetako bat bihurtu dute.

After the Party

Filmin

Zeelanda Berriko “After the Party” sei atalez osatutako miniserie bat da, eta Penny-ren istorioa kontatzen du: adinertaineko institutuko irakasle

batena. Familiarekin eta lagunekin antolatutako festa batean, senarrari (Peter Mullan) Grace alabaren lagun bati abusuak egin izana leporatuko dio; inork ez dio sinetsiko, eta haren mundua amiltzen hasiko da. Telesaila ekintza horietatik bost urtera girotuta dago, gizona Zeelanda Berrira itzultzen den unean. Narrazioak denboran jauziak egiten ditu (flashback bidez), gertatutakoaren eta horren ondorioen hariak pixkanaka aletuz.

Misterioa argitzearen alde baino gehiago, suspense moral eta psikologikoaren alde egiten du telesailak. Dramaren sustraia baditu ere, zenbait unetan thriller psikologikoaren bideari jarraitzen dio.

Wellingtonen girotua (Zeelanda Berriko hiriburua, alegia), inguruneak pertsonaia bat balitz bezala funtzionatzen du. Ildo horretatik, Britainia Handiko telesailen kutsua du: estilo naturalista, soila eta apaingarririk gabekoa erabiltzen du. Kamera bizkarrean, kolore itzaliak eta isilune trinkoak dira nagusi. Narrazio estilo sotil horrek sakon kaltetutako pertsonaien eguneroko bizitzan modu oso sinesgarrian murgiltzea ahalbidetzen du.

Kontakizunaren arreta osoa Robyn Malcolmen pertsonaia rengan eta haren interpretazioan jarri dute sortzaileek. Interpretazio bizia, konplexua eta errailetakoa eskaintzen du; lan aparta egiten du, eta bere pertsonaiaren geruza guztiak zoragarriak dira.

Toxic Town

Netflix

Corbyn (Ingalaterra) 80ko eta 90eko hamarkadetan izanda-

ko benetako gertaerak ditu oi-narri telesail honek: hondakin toxiko industrialen kudeaketan izandako arduragabeke-riak jaioberri askoren sortzeti-ko malformazioak ekarri zituen. Hainbat emakumek –Susan McIntyre (Jodie Whittaker), Tracey Taylor (Aimee Lou Wood) eta Maggie Mahon (Claudia Jessie)– sistemari aurre egingo diote eta agintarien aurka matxinatuko dira; atse-denik gabe borrokatuko dira justiziaren alde eta tokiko agintariei eta ustelkeria insti-tuzionalizatuari aurre egingo diete. Ingurumen-eskandalu horrek orbain ezabaezinak utzi zituen.

Minkie Spiro-ren zuzendari-tzak giro ilun eta errealista eman dio telesailari, eta ko-munitatearen etsipena eta etengabeko borroka bikain is-latu ditu. Jack Thorne-ren gi-doia, bestalde, salaketa sozia-laren eta hunkiberatasun pertsonalaren arteko orekaga-tik nabarmentzen da. Lau ka-pituluetan zehar, narratiba hunkigarria eta oso indartsua erabiliz, ama horien erresilien-tzia eta determinazioa nabar-menduko dira. Ingalaterraren historiako ingurumen-hondamendi nagusietako ba-ten esparruan gertatuko da guztia.

Vargasommar

Filmin

Hannah Wester protagonista Haparanda-ko polizia agente ezaguna da. Elin alabaren due-la 20 urteko desagertze miste-riotsua bihotzean darama il-tzaturik, eta bai berak bai senarrak zailtasunak dituzte bizitzaren hariari berriz euste-ko. Mugaren beste aldean, Fin-landian, aurkituko duen gor-

puak droga trafikatzaille odol-tsu batzuekin lotura izan leza-keen kasu bat argitzera era-mango du. Telesailak giro eta tonu bereziak isurtzen ditu etengabe. Coen anaiei ku-tsuak zipriztinduta (bereziki “Fargo”), dena kasu hutsal ba-ten itxurapean hasiko da, bai-na ur-tanta txikia zirudiena bizitzak hankaz gora jarriko dituen olatu bilakatuko da: pertsonaiei egunerokoa as-tinduko duen indar ezkutua, istorioaren pizgarria. Coenda-rrek maiz erabiltzen dituzten osagaiak azalduko dira hemen ere. Pertsonaia inperfektuek ehuntzen dute istorio honen benetako muina; kontraesa-nez, zauriz eta isiltasunez be-teak, gizatasun zartatuaren is-pilu dira. Hannah-ren paperean Eva Melander sue-diarra ari da, “Border” filmean egindako lan bereziagatik eza-guna. Bere interpretazioak barne gatazka eta kemena uz-tartzen ditu modu sotil baina indartsuan. Presentzia hipno-tikoa izango du Kate-ren rola jokatzeko duen Eliot Paulina Sumnerrek ere –Coco Sumner izenarekin ezaguna–.

Thrillerra, drama eta umore beltza nahasten dituen istorio honek, leialtasuna, mendekua eta justizia darabiltza gainean hegaka, istorioaren gainetik beti presente.

Reservatet

Netflix

“Reservatet” Danimarkako te-lesailaren bihotzean *au pair*-en gaiak egiten du nagusiki taupada, baina egileek hautatu duten testuinguru mamitsuak begirada zabalago baterako leihoa irekitzen du. Kopenha-geko iparraldeko auzo abera-tsenetako batean girotua,



Ruby, Filipinetako *au pair* gaz-tea, desagertu egin da bat-ba-tean. Pribilegioz betetako pai-saia honetan, egoera zaurgarrian dagoen emakume baten desagertzea sekretu ilun ugari azaleratuko ditu, eta gezurrez eraikitako egitura osoa dardarka jarriko du.

Desagertzea horren atzean zer gertatu den apurka desku-bituko dugun arren, hasieran (gizonezko) poliziek ez diote

lehentasunik emango; erorke-ta hori barrenetik hasiko da, izan ere, Cecilie bizilaguna –hura ere aberatsa eta pribile-gioz gainezka– desagertzeare-kin obsesionatuko da eta per-fekzioaren maskara pitzatzen hasiko da. Utzikeriaren horma grisaren aurrean, Aich izeneko ikertzailearen inplikazioa na-barmena izango da –“kasuali-tatea”, emakumea eta arrazia-lizatua–.

Thrillerraren eta suspensea-ren hariatzen ehunduta, tele-sailak gizartearen zenbait zau-ritan piko ematen du: arrazakeria, matxismoa, langi-le migratzaileen errealtatea, lan esplotazioa, nerabeen sex-ting-a eta klasismoaren egitu-ra ikusezinak.

Klixerz gainezka dago, eta gi-doitik jaiotzen diren zenbait pasarte brotxa lodiz idatziak daude, baina oro har aztarna nahiko sakona uzten du. Gai-nera laburra eta oso entreten-i-garria da “Reservatet”-ek 34-38 minutu inguruko sei kapitu-luetan azaltzen duen istorio guztia.

«Ta ezer ez da berdina»

Koldo SAGASTI

Uztailaren 1ean Francesca Albanese NBEko Giza Eskubideetako kontalariak “Okupazioaren ekonomiatik genozidioaren ekonomiara” izeneko txostena aurkeztu zuen. Dokumentuan Palestinako genozidioari lagundu eta etekina ateratzen dioten nazioarteko enpresa nagusiak bildu zituen; tartean, Euskal Herriko CAF konpainia. Beasaingo korporazioak sei urte daramatza, nazioarteko legediaren irizpideen kontra, Jerusalem Ekialdeko kolonia ilegalak hirigunearekin lotzen dituzten azpiegiturak eraikitzen, eta proiektu kriminal horrek eraman du NBERen jomugan izatera.

CAFi Jerusalemekeo trenbide-proiektutik erretiratzeko galdegiten dion mugimenduak ere urteak zeramatzan ohar-tarazten NBERen zerrendan sartzeko aukera oso litekeena zela, eta balizko argitalpenaren egunetik aurrerako ibilbide orria ere prest zeukan.

Mugimenduak aurreikusten zuen txostenak hauts mediatikoak harrotu-

ko zituela Euskal Herriko prentsan, historian lehen aldia izango baitzen nazioarteko erakundeek euskal konpainia baten jardura kriminala salatzen zutena. Aitzitik, salbuespenak salbuespen, dokumentuak komunikabide gutxi batzuen kronika baino ez zuen merezi izan, eta apenas segundo eskas batzuetako aipamena, EITBko albistegietan. Areago, hedabide publikoak Beasaingo konpainiaren irudi korporatiboa zurtzera dedikatu zituen hurrengo egunetako titularrak.

Bestalde, espero zitekeen Eusko Jaur-laritzak NBERen txostenak seinalatutako konpainia batean duen partaidetza berraztertu beharko zuela; are gehiago, ekainaren 5ean Eusko Legebiltzarrak onartutako mozioak «Israelekin eta Palestinaren okupazioarekin lotutako enprekin dituzten akordioak berrikusteko» galdegin baitzien «erakunde guztiei». Pradalesen gobernuak, ordea, txostenaren ondorengo asteotan, berraztertu beharrean, areagotu egin du konpainian duen partaidetza publikoa.

Nolanahi ere, euskal erakundeek erantzukizunez ez jokatuagatik, aurreikus zitekeen zerrenda lotsagarrian agertu izanak nazioarte mailako beste kontratu publiko batzuk eskuratzeko ateak itxiko zizkiola trengintza-konpainiari. Baina ez, enpresa kriminalen datu-basean agertu zenetik aste gutxira kontratu mamitsu bat esleitu diote CAFi Belgikan.

Akats bat egin du elkartasun-mugimenduak: garai bateko irizpide zaharren arabera egin zituen bere aurreikuspenak, munduan gutxieneko joko-arau batzuk zeuden garaietako irizpideen arabera. Baina mundua dezente aldatu da azken bi urteotan. Azken hamarkadetako genozidiorik zitalena geldituko badugu, jai dugu uste badugu nazioarteko erakundeek, prentsak edo merkatu askearen arauak nor bere lekuan jarriko dutela. Erantzukizun pertsonalen garaia da, CAFeko langileek kontzientziaz jokatzeko duten erantzukizunetik hasita, munduan jada ezer ez baita berdina izango. •



Herriak Ibilbideak Naturguneak Tokiko Merkataritza

+ tokiko merkataritza

Euskal Herriko tokiko merkataritza eta ostalaritza bultzatzen



<https://ehgida.naiz.eus/>

**Maitane MARTINEZ EGUILUZ**

Donostiako Informatika Fakultateko irakasle eta ikerlaria, UPV/EHU

CL1: ordenagailu biologikoa ala izaki biziduna?

Bartzelonan urtero egiten den **Mobile World Congress** ekitaldia industriako azken berrikuntzak ezagutzeko aukera bikaina da. Aurtengo edizioan, arreta bereganatu duen aurkezpene-tako bat izan da CL1: lehen ordenagailu biologikoa. Ez da makina arrunta: Australiako Cortical Labs enpresak garatu du, eta **laborategian hazitako giza jatorriko zelula neuronalekin funtzionatzen du**, siliziozko txip batean integratuta.

CL1 ordenagailua ez da eguneroko erabilerarako diseinatu, ezta ohiko informatika-lanetarako ere. Bere helburu nagusia **ikerketa zientifikorako tresna** izatea da, batez ere neurozientziaren eta biomedikuntzaren arloan. Adibidez, aukera ematen du ikertzeko nola erantzuten duten zelula neuronalek botika jakin batzuen aurrean eta nola prozesatzen duten informazioa; horrez gain, ahalbidetzen du neuroendekapenezko gaixotasunak hobeto ulertzea, hala nola Parkinson edo Alzheimer gai-xotasunak.

Funtzionamenduari dago-kionez, bestalde, CL1 ordenagailuak **biOS** izeneko sistema eragilea erabiltzen du (Biological Operating System). Sistema horrek **mundu birtual bat simulatzen du**, eta horri buruzko informazioa neuronei helarazten die seinale elektrikoak bitartez. Neuronek jasotako estimulu horiek prozesatu eta erantzun elektriko propioak sortzen dituzte. Ordenagailuak erantzun horiek interpretatzen ditu eta, horien arabera, testuinguru birtuala egokitzen du, ikaskuntza prozesu baten bidez.

Sistema neuronen mantenuaz ere arduratzen da. Zelula neuronalak elikagai ugariko disoluzio batean daude, eta baldintza egokiak bermatuz gero, **sei hilabetez bizirik irauteko gai dira**. Horretarako, gailuak tenperatura, pH maila eta gas trukea etengabe kontrolatzen ditu, gorputz baten an-

tzera. Esaterako, tenperatura 37 °C inguruan mantentzen da, eta pH-a orekan, ez azidoegi ez alkalinoegi, zelulek jardura egokia izan dezaten.

CL1 ez da nabarmentzen funtzionamenduaren ikuspegi-tik bakarrik: **energia-eraginkortasunean ere badu abantaila handia**. Adimen artifizialaren eredu konplexuak entrenatzeko erabiltzen diren GPUek urtean milaka kilowatt-ordu kontsumitzen dituzte –batzuetan 3,7 milioi wattetik gora–. CL1, berriz, 850 eta 1.000 watt artean ibiltzen da, eta horrek energia kontsumoaren aldetik aurrezpen handia ekar dezake.

Hala ere, teknologia honek hainbat **zalantza etiko eta praktikoa** pizten ditu. Alde batetik, sistema honek ez du animalien erabilera guztiz baztertzen. Izan ere, Cortical Labs-ek adierazi du etorkizunean animalien inguruko esperimentazioa murrizteko balio dezakeela, baina lehenengo prototipoetako batean giza eta arratoi neuronak erabili zituzten

Pong bideojoko klasikoa ikasteko esperimentuan. Bestetik, giza jatorriko neuronon erabilerak kezka etikoak sortzen ditu. Nahiz eta neuronak laborategian hazitakoak izan eta kontzientziarik ez duten, sistemak gero eta konplexuagoak bihurtzen diren heinean, arau eta kontrol zorrotzagoak beharko dira. Horrez gain, CL1en bizitza erabilgarria mugatua da: sei hilabetean behin ordezkatu behar dira zelulak, eta horrek kostu tekniko eta ekonomiko handiak dakartzkie erabiltzaileei.

Teknologia honek oraindik hastapenetan jarraitzen badu ere, CL1 bezalako sistemek ordenagailuak ulertzeko modua bera jartzen dute zalantzan. Ez da amaiera bat, baizik eta hasiera bat: adimen artifizialetik harago, adimen biologikoaren aroari ateak zabaltzen dizkio. •



Laborategiko ikerlari bat ordenagailuarekin lanean. GETTY IMAGES

BEHATXUL[📷]TIK

Juantxo EGAÑA



RICARDO MARTIN. PHOTO CARTE FUNTSA. KUTXATEKA.

DONOSTIAKO AUZOTARREN BENETAKO FESTAK, 1919AN

1919ko uda da. Donostia jardueraz beteta dago. Udatiarrek, konde-kondesek, markesek, militarrek, ministroek, prin-tze-printzesek eta errege-erreginek tokiko eta Estatuko prentsaren azalak betetzen dituzte. Baina, bitartean, donos-tiarrek dira ahaztutako pertsona nagusiak, eta, bereziki, auzotako jendea. Abuztuaren 1ean, Klub Nautikoak antola-tutako nazioarteko estropadak, Gran Casinoko kontzertuak eta Bidebietako Tiro Nazionalako Nazioarteko Lehiaketa nabarmentzen dira azaletan. Hala ere, aurreko egunean, uztailaren 31n, Donostiako Loiola auzoan jaiak ospatzen di-ra. Barruko orrialdeetan, prentsak aipatzen du tranbiak jendez gainezka iristen direla Loiolar, eta Hernanitik Donos-tiako auzora doanean ezinezkoa dela igotzea jendetzagatik. Goizean, leporaino betetako plazan, bertso txapelketa egin da, Olloki, Olegario Garin eta Txirrita hernaniarrekin eta Zizurkilgo Juan Jose Ugarterekin. Arratsaldean, jaia Uru-mea ibaiaren ertzetara lekualdatu da: Ricardo Martinen irudiak erakusten duen kukaña, igeriketa lehiaketa eta txalu-pa estropada, titular handientzat, ikusezinak dira.



HALA BAZAN

IPUINAK

Euskal Herriko ipuin
tradizionalen podkasta

Amaia Elizagoien, Ander Edo, Ane Gebara, Dorleta Kortazar,
Joxe Mari Carrere, Ixabel Agirresarobe



naiz:irratia

